



ALDEZ AURREKO KONTSULTA. GAIA: 2020RAKO ZERGA NEURRIEN AURREPROIEKTUA.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako aurreproiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Izan daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Hori betez, kontsulta bat planteatzen da, 2020rako zerga neurrien arau esparru berri bat ezarri nahi duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, urriaren 26ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Zergei buruzko hainbat foru arau
--------------------	---



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Atzemandako beharrei erantzutea
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Beharrezkoa da planteatutako aldaketak batera eta azkar egitea
HELBURUAK	Zerga iruzurraren aurka borrokatzea eta Foru Ogasuna modernizatzea Zerga pizgarriak ezartzea edo egun direnak aldatzea, haien egitura hobetzeko eta, horrela, ekonomia eta lehiakortasuna sustatzeko Araudia egungo gizartearen eskakizunetara egokitzea Arabako zerga araudia gainerako lurralde historikoetakoarekin bateratzea



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Ogasun, Finantza
eta Aurrekontu Saila
Departamento de Hacienda,
Finanzas y Presupuestos

EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Aukerarik egokiena dela uste da